

Larunbata da eta lagunekin elkartuko zara.

Non elkartuko zarete? Badu izenik elkartzeko lekuak?

Nora joango zarete, zein leku edo lekuetara? Zein izen dute leku horiek?

Zure lagunek beti dabilta leku berdinetatik eta aspertu egin zara; nora gustatuko litzaizuke joatea lagunekin?

Bermeok kostalde ederra dauka; Ibiltzen al zarete inoiz itsasertzetik? Bermeoko itsasertzeko zein paraje ezagutzen duzu? Ezagutzen dituzu hauek?: Frantzunatxeta, Talape, Tonpoia, Arriboleta, Aritzatxu

Bermeok mendialdea ere ederra dauka. Ibiltzen al zarete inoiz menditik? Bermeoko zein mendiko paraje ezagutzen duzu? Ezagutzen dituzu hauek?: Burgo, Garbola, Mañu, Almika, Sollube, Demiku, Zarragoiti mendia.

Azalpenetan deskribapenak egin behar dituzu eta lekuen izenak adierazi.